

**J. A. PAGOLAREN LIBURUA:
*JESÚS. APROXIMACIÓN HISTÓRICA***

**Santiago Guijarro jaunaren iruzkina
eta beste ohar batzuk**

Santiago Guijarro jaunak bere iritzia ematen du lerro haue-
tan J. A. Pagolaren liburuari buruz. Pagolaren liburuan mun-
duko biblialari ezagunen iritzien laburpen bat ematen da,
Jesusen historiari buruz aztertu dutenaren inguruan. Beraz ez
da interpretapen berri bat Pagolak aurkitu duena, bere biblio-
grafia zabalean aipatzen dituen ikertzaileen iritzien laburpen
bat baizik, baina beti batzuen edo besteena jarraituz, arra-
zoiak ondo haztatu eta gero. S. Guijarro jauna biblialari eza-
guna da Espainian eta hemendik kanpo. Estatu honetan dau-
den biblialari ezagunak munduan, gutxi dira, eta horietako
bat hauxe da. Gainera Biblia zientzietarako katedraduna Sala-
mancan Espainako gotzainen unibertsitatean. Bere iritziak be-
reiztu nahi ditu Biblia eta Itun Berriaren ikerketan erabiltzen
diren metodoak, ondo ezagutzen dituelako, eta dogmatikaren
metodoak. Pagolaren liburua Itun Berriaren interpretapen his-
toriko bat da, eta berak argi eta garbi aitortzuen duen bezala
ez da dogmatika liburu bat. Beraz metodo historiko-kritikoa-
ren emaitzak onartzen ditu eta jarraitzen, beste biblialari guz-
tiek egiten duten legez.

1. Guijarro jaunaren iritzi laburra

‘Alde batera uzten ditut liburuaren deskribapena eta hama-bost kapituluaren edukina, ezaguntzat ematen ditudalako, eta liburuaren balioari ekingo diot. Nire iritziz bidezko epaiketa bat egin nahi baldin bada, ohar bi beharrezkoak dira. Lehenengoa liburuaren izaerari dagokio. Ez da kristologia bat, hurbilketa historiko bat baizik izenburuan esaten denez. Bere helburua azkenengo ekarriarik onenak Jesusi buruz, ikerketa historikoak eman dituenak biltzea izan da. Eta ez hausnarketa oso bat Jesusi buruz eskaintzea. Kristologiak eta ikerketa historikoak Jesusi buruz oinarritzko iturri bezala lau ebanjelioak dauzka, baina galdera eta interes desberdinekin hurbiltzen da iturri horretara. Kristologiaren muina bi gizaldi beranduago jarri ziren dogmak dira. Ikerketa historiak berriz, ebanjelioak idatzi baino hamarkada batzuk lehenago burutu ziren gertakizunak berreskuratu nahi ditu. Egileak [Pagolak] argi eta garbi esaten du non kokatzen duen bere burua, helburua hitz hauekin aitortzen duenean: ‘en este trabajo he buscado aproximarme a la figura histórica de Jesús estudiando, evaluando y recogiendo las importantes aportaciones de quienes están hoy dedicados de manera más intensa a la investigación de su persona’ (6. orrial.). Eta hauxe da hain zuzen irakurleak liburuan aurkitzen duena. Bigarren ohar bat esateko, liburu honen taxukera literarioa kontuan hartu behar dela. Ez da idatzi akademiko bat, kontzeptuak zehatz emateko ardura estu bat duena, lan literarioago bat baizik, sarritan estilo poetiko bat duena eta oso suspertzalea dena. Horregatik esaten diren gauza batzuk ulertu behar dira lanaren osotasunean, eta ezin dira hartu hitzez hitz. Batzuetan galdera erabiltzen du edo gehiegikeritxoek batzuetara jotzen du, edo beste baliabide batzuk erabiltzen ditu, irakurlea adi eukitzeko. Hauxe da liburu honen balio handi bat. Saiakera oso original bat da, eztabaidak sustaketa poetikoekin eta birsorketa narratiboekin elkartzen dituena. Honelako idazkietan adierazia ikuspegi orokorrean dago, eta ez baieztapen zehatz eta puntukari batzuetan. Eta idazkera honekin lortzen

du liburua erraz eta gustura irakurtzea, eta irakurlea osotasunari begira jartzen du, eta ez xehetasun bati edo besteari. Aurreko ohar hauek egin ondoren liburuaren izaera eta forma literarioari buruz, bere edukinean sartuko naiz. Idazki hau hausnarketa, ikasketa eta ebaluaketa lan ikaragarritzko baten emaitza da, eta era berean sintesi eta baloraketa baten emaitza. Azken hogeita hamar urteotan Jesusi buruz atera diren ikerketa historikoak ondo ezagutzen ez dituenak, ezingo du neurtu Pagolak egin duen lana, eta are gutxiago bere ekarria sintesi honekin. Liburu honen atzean ez dago bakarrik ikerketa honek eman dituen lanik garrantzitsuenen (liburu eta artikuluen) irakurketa, ataletako bibliografiak eta bukaerako bibliografiak erakusten duenez. Hori baino gehiago, badago hemen ebaluaketa eta konparaketa lan zehatz, astitsu eta xehea, sintesi guztiz orekatu batera iristeko. Azken garaiko ikerketetan Jesusi buruz idatzi denak, berari buruz ikuspegi desberdinak eskaini ditu. Gehienetan ikuspegi hauek kristautasunetik kanpo eginganda daude, eta batzuetan kontra. Pagolaren liburuak, ordea, ikerketa hori seriotasunez hartu du eta bertan oinarrituta, kristau fedearekin koerentea den ikuspegia aurkezten du. Behar bada ez da konturatu, baina liburu honek, zeharretik izanda ere, balio apologetiko itzela du. Gaurko egoeran ikerketa historikoa erabiltzen da Elizak aitortzen duen Jesus horren irudi oso desberdinak aurkezteko. Pagolak liburu honetan adierazten du Jesusen 'kanpoko ezaguera' historiara jota lortzen duguna, ez dagola kontrajarria, 'barneko ezaguerari', sinismenak ematen duenari, aberastu egiten duela baizik. Beraz liburu honek islatzen duena da sinistedun baten ikuspegia, Jesusi buruzko ikerketa historikoak ondo ezagutzen dituelarik. Harritzeak da liburu honen baieztapen gehien atzean dauden irakurketa eta hausnarketak ezagutzea. Ez da inolaz ere liburu arin bat, azken teoria onarritzat hartuta egindakoa, ez, liburu serio, ondo oinarritutakoa eta ondo idatzia baizik. Esan beharra dago era berean, Jesusi buruzko liburu guztietan bezala, bilaketa pertsonal baten eta garai bateko sentikortasunaren isla

dela. Lehengo gizaldiaren hasieran A. Schweitzer-ek, XIX gizaldian zehar Jesusi buruz egindako ikerketa historikoen irazketa bat egin zuen, eta ondorio hau atera zuen: garai horretako ikertzaileek emandako Jesusen irudia, ikertzaile bakoitzak zuen ikuspegiaren irudia zela neurri baten. Hori derrigorrezkoa da. Jesus pertsonaia bat da eta berari hurbiltzen zaiona ez da minsor gelditzen. Eta honexek berak balio du Pagolaren liburuarentzat. Liburu honetan agertzen den Jesusen irudiak, nire iritziz, islatzen du Pagolaren ardura Jesus adierazgarri bihurtzeko gaur ezagutzen ez dutenentzat, edo urrundu diranentzat. Ardura pastoral honek azaldu dezake erabiltzen duen hizkera Jesusen zeregina deskribatzeko edo Jainkoaren erreinuaren helburua deskribatzeko. Erreinu hori aurkezten du ‘duintasun handiagoko bizitza eta pozgarriagoa denentzat’ dela, edo antzeko esaldiekin. Espresabide hauek adieraz dezakete Jesusen ikuspegi eskatologikoa gutxi agertzen dela. Gai oso eztabaidatua da ikerketetan eta ez da erraza jakitea zenbateraino ikuspegi eskatologikoak garrantzitsua izan zen Jesusentzat. Pagolak egiten duen hurbilketa ez da muineko gai bat. Ez dago esan beharrik hau eta beste Pagolaren aukera batzuk, Jesusen inguruan ditugun datoak interpretatzerakoan, diskutigarriak direla. Historia ez da zientzia guztiz zehatza eta berak onartzen du bere liburua hurbilketa bat dela. Baina bigarren mailako gaiak dira, fedeari ez dagokiozanak: esaterako noiz eta zergatik aldentu zen Jesus Bateatzailearengandik eta noiz hasi zuen bere jarduera askea, emakumearen egoera hain estu ezarrita dagoen hirietan, baserri giroan berdina zen, Jainkoaren erreinuak kutsu eskatologiko sendoa zuen edo ez, zein zen Jesusek bere ikasle hurbilenei agindu zien zeregina, nolako adierazia eman zion Jesusek tenpluaren seinuari, edo zein izan zen hilobi hutsaren tradizioaren jatorria. Gai hauei eta beste askori buruz, eztabaida luzea egin daiteke. Ikerketa hau aurrera joango da dato berriak agertzen diren neurrian, eta orain ditugun baino interpretatzeko forma hobetoak bilatuko diranean. Bide honen zalantzarik gabe, lagunduko digu Jesus hobeto ezagutzen

eta hobeto ulertzen. Dena dela, sakonean dagoen galdera eta liburu honetan inplizitoki, eta egin dizkieten iruzkin negatibo batzuetan esplizitoki agertzen dena hurrengo hau da: Jesusengana iristeko bi formen artean dagon erlazio eta lotura, hau da ezaguera historikoa eta fedearen ezaguera. Gauzak guztiz simple bihurtuz, esan genezake ezaguera historikoa dela historiografiaren eredu adierazgarriak (metodoak) erabilia lortzen dena. Metodo hau bere izaeraz, aldakorra da eta etenik gabe berlantzen da. Fedetik sortzen den ezaguerak berriz, bere oinarria printzipio honetan dauka: fededunak onartzen du Jainkoak bere izaera adierazi duela (errebelazioa). Hau izaeraz aldaezina da eta beti irauten du. 'Historiaren Jesus' esaten duguna historiografiaren eredu adierazkorrean ditugun datoak aztertuz, berreraiki dezakegun Jesusen irudia da. 'Fedearen Jesus' esaten dugunaren irudia eleizak aurkitu duena da Jainkoaren errebelazioa eskuratu ahala. Jesus ezagutzeko bide desberdin bi dira, baina batak ez du ukatzen bestea, osagarriak dira. Jokaera honek ondorio batzuk ditu Pagolaren liburuari, eta beste Jesusi buruzko, eta kristautasun sortu berriari buruzko idazki batzuei balioa ematerakoan.

Lehenengo eta behin, ezagutzeko bide desberdin bi direla esaterakoan, adierazten duguna da, ezin diezaiokegula balioa eman ezaguera mota bati, bestearen irizpideak erabiliz. Hau gertatzen da kristologiaren printzipioekin ikerketa historiko bat neurtzen denean, eta ondorio bezala Jesus hori ez dela Elizaren Jesus ateratzen denean. Argi dago eta jakina da! Errebelazioa garatzen joan da eta IV. gizaldiko kontzilioetara arte itxoin beharko da Jesusi buruz kristauok sinisten duguna argitzeko eta formulatzeko. Gauza berdintsua gertatzen da ezaguera historikotik baloratu nahi denean fedearen ezaguera, Jesusi buruz aitortu daitekena, historikoki frogatu daitekeenaren arabera murriztuz. Jokaera hau ere ez da egokia, ezaguera baten baloraketa, Jesus ezagutzeko beste era desberdin bati egokitzen diolako. Bigarrenez, osagarriak direla esaten dugunean, ezaguera bi hauen arteko elkarrizketa oso emankorra izan

daitekeela adierazi nahi dugu. Kristau ikuspegitik ezin daiteke konpondu tirabira hau, inozoki esanez ezaguera historikoa ez dela osoa eta aldakorra dela. Nahiz eta behin-behineko eran eta gutxi gora-behera, ikerketa historikoak Jesusen ‘haragira’ hurbiltzen gaitu eta berpiztuaren presentzia gure artean ezagutzen laguntzen digu. Egia da, batzuetan Jesusen ikerketa historikoa deseroso gertatzen dela, eta berrikuntza prozesu batzuk eskatzen dituela, baina fededunak batez ere hortxe ikusi behar du dei bat bizitzaren bihurtze eta ebazpenerako, eta ez mehatxu bat. Era berean fedea ematen duen Jesusen ezaguera garrantzitsua gerta daiteke historialariarentzat, Jesusen oroimenaren testuinguru interpretatzailea historian zehar bere jarraitzaileen talde izan delako, eta esparru horretan gorde izan da erarik osoenean oroimen hori. Pagolaren liburuak aurrez suposatzen du ezaguera historikoak autonomia bat duela, eta ezin dela epaitu fedearen ezagueraren irizpideekin. Baina era berean itxaroten du berreraiketa historiko serio baten ahaleginak lagun dezakela Jesus hobeto ezagutzen eta berearengan fedearen suspertzen, galdera mordo deseroso bat bera ere baztertu gabe’.

Santiago Guijarro Oporto.

2. Gaitzespenak

Esan behar den lehenengo gauza da Pagolaren liburuak, ‘Jesus. Aproximación histórica’ ez dela inolaz ere Bibliaren azalpen eta interpretapen berri bat berak aurkitu duena. Pagolak 600 liburutik gora eta beste adituen artikulua mordo bat irakurri du eta gero horien denen datuekin laburpen bat eta sintesi bat osatu du, erraz irakurtzen dena. Horrek esan nahi du aditu horiek ebanjelioak edo Itun Berriko beste idazkiak aztertu dituztela sakon eta zabal, orduko hizkuntzak eta inguruguneko literatura ondo ezagututa eta egoera soziala eta historia ondo aztertuta. Gainera, arkeologiaren datuak ere kontuan izan dituzte. Batzuk katolikoak dira, beste batzuk luterotarrak, bes-

te batzuk anglikanoak eta beste batzuk, beste protestanteen arteko adarren batekoak. Baina denak adituak eta gehienak Erteuropa, Europako Iparralde, EEBBk, Britainia Handia, eta Kanadako unibertsitateetan irakasle direnak edo izan direnak. Gazteleraren esparrukoak gutxi batzuk dira eta 1980tik honantz. Orduan esan beharra dago Pagola ez ezik horiek denak gaitzetsi behar direla. Badago beste alderdi bat azpimarratzen. Pio XII.ak 1943an enziklika bat idatzi zuen nolako irizpideak jarraitu behar dituzten katolikoek Biblia interpretatzeko adieraziz. Eta metodo historiko-kritikoak ez bakarrik gomendatu, derrigorrezkoak direla idatzi zuen (Divino afflante Spiritu). 1964an Paulo VI.ak berresten du enziklika honetan esandakoa. Eta 1993an Vatikanoren Biblia batzordeak metodo historiko-kritiko hauen azalpen batzuk argitu zituen eta gaitzetsi zuen hitzez hitz egindako interpretapena, 'giza arrazoiketa ezabatzeneko era bat dela' esanez. Jakina, Vatikanok sinatutako agiri guzti hauen atzean Biblia gaietan adituak daude. Pagolak azalpen desberdinen artean, aukera bat egiten du, arrazoiak oharretan jarrita. Beraz ikerle guzti horien lanean eta aurretik 1900 eta 1980 bitartean egin diren ikerketetan oinarrituta dago, azken hauetan zuzenean ez bada ere. Ikerlari horietako batzuk gainera, ez dira izan laboratoriko ikerlariak bakarrik. Lutertarrak ziren baina A. Schweitzer Afrikara joan zen bizitzera eta legenardunentzat hospital bat eraiki eta ardura eraman zuen hil arte. Eta Pagolak aipatzen duen eta ezaguna zen Käsemann jaunaren alaba bat misiolari bezala Arjentinara joan eta diktadura garaian desagertueta bat da.

Gaitzespenen hurrenkera hau izan da: lehenengo J. A. Sa-yés jaunak, Peraltako semeak, Burgosko teologi fakultatean irakasle denak, 14 folioko gaitzespen bat idatzi zuen. Dogmatikaren metodoa erabiltzen du, hau da, IV. gizaldian elizak Jesusen jainkotasunari buruz formulatutako dotrina, Biblia aztertzen erabiltzen diren metodo historiko-kritikoak jarraituz idatzita dagon Pagolaren liburua, heretikoa dela esateko. Jokaera hau guztiz garrantzitsua da, metodo desberdin bi nahasten direne-

an, inolako argitasunik be ez delako lortzen. Ekonomiaren metodoak bakarrik erabiltzen badira historia azaltzeko, datuak bortxatu behar dira. Dogmatikaren metodoak bakarrik erabiltzen badira Bibliaren datu historikoak azaltzeko, Bibliaren datuak behartu egiten dira batzuetan. Eta ezin da onartu datu historikoen bortxaketa dotrina erlijioso edo filosofiko baten izenean. Honen atzetik J. M^a Iraburu batek beste gaitzespen bat atera zuen. Honek bere epaiketari indarra emateko Pio IX.a doatsuaren ‘Syllabus’ eta Pio X.a santuaren ‘Lamentabili’ dekretua eta ‘Pascendi’ enziklika aipatzen ditu. Bukieran hau idazten du: ‘A Dios nuestro Señor y a todos nuestros obispos, “que fieles a la verdad promueven la fe católica y apostólica”, les pedimos que libren al pueblo cristiano de las tinieblas del error y que los guarden en el esplendor de la verdad católica’. Gero L. J. Argüello jaunak orrialde bi idatzi zituen Pagolaren liburuaren kontra. José Rico Pavés, Espainiako gotzainen Fedearren dotrina batzordeko idazkariak beste hiru orrialde atera zituen, bere iritziz 6 puntutan Pagolaren liburuaren hutsuneak bilduz. Baina denak Sayés jaunaren idea nagusiak eta batzuetan esaldiak, hitzez hitz jarraitzen dituzte. Beraz pentsa daiteke iturri horretatik hartu dutela ura. Eta denek dogmatikaren metodoak onartzen dituzte, Biblia azterketan erabiltzen diren metodo historiko-kritikoak neurtzeko. Pisuairekin metroak neurtzea litzateke, nahiz eta neurri bat bestearen lagungarri izan batzuetan.

Eta Demetrio Fernández jaunak, Tarazonako gotzainak bere elizbarrutiko webgunean honelako izenburuarekin orrialde bi jarri zituen: ‘El libro de Pagola hará daño’. Gotzain hau 27 urtean gutxienez Toledoko seminarioan egon da kristologia irakasten eta errektore ere izan zen Munilla Agirre, Palentziako oraingo gotzaina, bertan seminarista zela. Teologia dogmatikoko doktoradutza dauka. Idazki labur honek ere J. Antonio Sayésen esaldi batzuk eta ideia eta hitzak ere jasotzen ditu. Iraburuk gainera Pagolaren biografi fitxa laburra ere jartzen du: ‘...durante el servicio episcopal en San Sebastián de mons. Jose

M^a Setién, que termino en 2000, fue muchos años vicario general, y algunos rector del seminario. Actualmente siendo obispo mons. Juan M^a Uriarte, Pagola es director del Instituto de Teología y Pastoral'. Jaun hauek bada, dogmatikaren metodoa jarraitzen dute kritiko-historiko metodoak erabiltzen dituen liburu bat epaitzeko. Geroago azalduko ditut metodo kritiko-historikoaren bide batzuk. Badago beste alderdi bat aipatu behar dena. Gaitzespen hauek 2007ko abenduan eta 2008ko urtarrilean agertzen dira. Euskadiko elizbarrutiak euren jokaera pastorala hartu zuten kontzilioaren ostean, eta giza eskubideen alde dotrina sendoa eman digute hemengo gotzainek urteetan zehar. Bestalde Etaren terrorismoaren eta beste terrorismo batzuen haginkada ankerrak jasan ditugu. Eta horien aurrean argi, garbi eta sakon hitz egin dute. Ez dute horrela jokatu beste gotzain batzuk eta gotzainen konferentziak, neurri berdina erabiliz delitu berdinentzat, batzuk egin edo bestek egin. Orain berriz Vatikanoko II. kontzilioa ahaztuta dago, Taranconen jokabideak baztertuta daude, eta Espainiako gotzainen konferentziak beste jokaera batzuk ditu. Donostiako elizbarrutiko gotzainak 75 urte betetzen ditu aurten eta aldaketa etorriko da. Eta elizbarruti honen inguruan 'aztoramen soziala' sortzeak, giroa egokitu dezake gotzain berriaren izendapena prestatzeko. Hau da, orain arteko jokabide pastoralaren kontra doan gotzainen bat jartzeko bidea prestatzeko era diplomatiko bat litzateke. Espiritu Santua horrelako nahaste-borrasteetan sartzea, bigarren agindua haustea da. Afera guzti honek antzekotasun larregi du politikan gertatzen diren jokaerekin: komunikabideek puzten dute gertakizun bat, 'aztoramen soziala' sortzen dute, eta fiskalak lanean hasten dira, eta gero justiziarekin eta etikarekin zerikusi gutxi duten erabakiak ateratzen dira.

Proporzioetik kanpoko legea agertzen da afera guzti honetan. Zio bakoitzak bere neurriko emaitza sortu behar du. Zio batek ondorio handiegia sortzen duenean, horrelako emaitzak ez ditu ez arrazoi zientifikoak ezta objetiboak ere, bestelako arrazoi sikologiko eta subjektiboak baino. Bestela ezin daiteke

ulertu Pagola artezkar jartzea, eta berak oinarriztat hartu dituen mundu guztiko biblialari ospetsuetako bat bera ere ez gaitzes-tea. Eta ez dut uste esan daitekeenik Burgosko teologi fakulta-tea, Tubinga, Gotinga, Munitx, Stuttgart, Innsbruck, Viena, Lo-vaina, Nimega edo Oxfordeko fakultateen mailakoa denik Bi-blia azterketetan. Teologari eta biblialarien nazioarteko komunitatean behintzat ez dauka horrelako mailarik. Pagolak aipatzen dituen ikerleak unibertsitate horietan eta Europa eta Ipar Amerika eta Kanadako beste fakultate askotan irakasle di-ra edo izan dira. Eta zerrenda asko luza daiteke. Gertakizunak ez dira berez sortzen ez elizan ez beste gizarteko erakunde as-kotan. Gainera ezin dugu ahaztu 1936ko gerraren emaitza zital asko bizirik daudela gure gizartean. Eta 1937an Espainiako go-tzainek sinatu zuten eskutitzagatik inoiz ere ez dutela barka-menik eskatu. Lauk ez zuten izenpetu eta horietako bat Gas-teizko gotzaina Mateo Mujika izan zen. Orduan gaurko Euska-diren mugak zituen elizbarruti horrek.

Gaitzespen hauek susmoa sortzen dute Pagola eta bere libu-ruaren kontra metodo historiko-kritikoak ezagutzen ez dituzte-nen artean. Gauza bat da susmoa sortzea, eta beste gauza bat guztiz desberdina, zalantzak eta galderak egitea, eta gaur bi-blialariek dakitzaten datuekin erantzunak bilatzea eta ematea. Susmoa ez da positiboa, galdera eta zalantzak izatea, guztiz normala da eta ikerketa bultzatzen du, erantzunak bilatzeko.

3. Pagolaren jokabidea

Pagolak berak aipatzen ditu Elizaren irizpideak Itun Berria-ren azalpena egiteko. Vatikanoko Biblia Batzordeak emandako irizpideak dira 1993ko agiri ofizial baten. Irizpide hauek ez di-tu egin Vatikanoren batzordeak bere kabuz, adituen jakituria eta esperientzia kontuan hartuta baizik. Eta aditu horien arteko gehienak Pagolaren iturri izan diren liburuen egileak dira. Gaur katolikoek eta protestante askok jarraitzen dituzte irizpi-de hauek, bai ‘Pontificio Instituto Bíblico’ deritzonean Erroman

eta Jerusalemen, eta bai Jerusalemgo 'École Biblique' izenekoan. Irizpide nagusiak hauek dira:

- Oinarrikeriazko irakurketa (fundamentalista) baztertu behar da.
- Metodo historiko-kritikoa erabiltzea beharrezkoa da.
- Hurbilketa garai hartako soziologiatik beharrezkoa da.
- Kulturaren antropologiatik egindako hurbilketa ere oso garrantzitsua da
- Ikuspegi askatzaileak ekarri positiboak ematen ditu Itun Berriaren azalpenerako.
- Hurbilketa feministaren ekarria lagungarria da.
- Bibliaren testuak ongi ulertzeko guztiz lagungarria da hor adierazten den mezuarekin norbere kidesuna.
- Bibliaren mezua gaurkotu behar da. (Pagola 477-480).

Jesusi buruz kristauok sinisten duguna ez da historiatik dakizkigun datuen ondorio bat edo bestelako jakituriatik lortutako emaitza bat. Hauek denak beharrezkoak eta oso lagungarri dira, baina sinismena beste maila baten dago.

Aipatu nahi dudana beste gertakizun bat ere egon da. Gotzain batek bere webgunen gaitzespena jarri du. Baina beste gotzain batek, eta ez da Euskal Herrikoa, liburu hau bere eskuartean erabili du bere otoitzerako eta irakurgai bezala. Baina hau ez da agertu inongo webgunean.

Gaitzespenen lehenengo erasoak 2007ko abenduan eta 2008ko urtarrilean izan zen. Orduan Pagolak 16 folioko erantzun bat prestatu zuen bere metodoak azalduz eta puntu eztabaidagarriak argituz. Horren laburpen bat egunkarietara bidali zuen eta 2008ko urtarrilaren 10-11n agertu zen Euskal Herriko egunkari batzuetan. Egunkarietan eta ETBko elkarrizketetan batek baino gehiagok, kristau fedegabeak izanik ere, positibotzat hartu dute liburu hau eta Jesusi buruz galderak bakoitzak

bere buruari egiteko aukera bat izan dela aitortu dute. Otsailaren 9an egunkari batek edo bestek hau argitaratu zuten: 'El portavoz de la conferencia episcopal no descarta que pueda llegar a frenarse la publicación'. Argialetxeak, PPC-SM, marianisten ardurapean, apirilean jaso du agindu hau. Gogoan hartu behar da, Tarazonako gotzaina eta José Rico, gotzainen fedebatzordeko kideak direla. Orain arte 50.000 ale saldu dira Espainian. Baina hemengo gotzainek ezin dute ekidin Hego Amerikako argitalpenik, edo prestatzen ari diren ingeleserazko itzulpena edo portugalerazkoa. Katalanerazkoa agian bai, edo euskarazkoa. Bat orain ateratzekoa zen eta bigarrena hilabete gutxi barru. Tartean Sayés jaunaren beste eraso bat egon da eta Pagolaren erantzun luzeagoa. Baina bestelako ondorioak ere izan ditu kontu honek: Pagolari berari osasun arazoak sortu dizkio.

4. Metodo historiko-kritikoak

Metodo honek lau adar nagusi ditu: Testuen kritika; Kritika literarioa; Formen historiaren metodoa (Formgeschichte); Idazketaren historiaren metodoa.

4.1. Testuen kritika edo finkaketa

Itun Berriko testuen kopia asko daude. Nagusiak bost dira, eta izen teknikoa erabiliko dut: Codex Vaticanus, Codex Sinaiticus, Codex Cantabrigiensis (Cambridge), Codex minusculus 614, Milango Ambrosiana bibliotekan dagoena, eta Bodmer II papiroa. Hauen ondoan bi milatik gora eskuidatzi daude, Itun Berriko zatiren bat edo beste dakartenak. Testu hauek denak konparatuta, adituek Itun Berriko grekerazko testua finkatzen dute. Testua finkatzeko irizpide sakonak bilatu dituzte adituek urteetan ikerketa lanetan ibili ondoren. Hauen denen behin-behineko berri batzuk jakiteko gaur erabiltzen den oinarriko testu kritikoaren argitalpena ikus daiteke: The Greek New Testament. Argitaratzaileak: K. ALAND, M. BLACK, C. M MARTINI,

B. M. METZGER eta A. VIKGREN, 1975, 3. argitalpena. Nik hau daukat aurrean, baina seguruenik geroagoko argitalpenak ere egongo dira. Atal hauetan 'kritika' hitzak irazketa lana egiten dela esan nahi du.

Kritika literarioa

Behin testua finkatuta dagonean beste urrats hau dator. Hartu testua eta hor agertzen diren berezitasun eta helburu literarioen bila hasten da ikertzailea. Honetarako, jakina, guztiz lagungarri dira arkeologia eta garaikide diren beste testu batzuk. Eta idazketak izan dituen gora-beherak eta nor izan den egilea aurkitzen saiatzen da. Honekin batera testuan agertzen diren formen historia (Formgeschichte) aztertzen da, eta gero idazki horien iturrien kritika. Urte askotako lanen ondoren ikertzaileek badituzte irizpide batzuk: Testu batek bestearekiko duen menpekotasuna, dituzten berdintasunetatik ateratzen da. Baina berdintasun hauek ikusita, agertzen diren desberdintasunak oinarritzko iturriarekin konparatuz, agerian gelditzen dira. Eta honelako aldaketak agertzen dira kopia desberdinetan: hobe-kuntza estilistikoak, laburpenak, luzapenak, zati desberdinen arteko lotura metodoak, oinarritzko testuaren azalpenak eta zentzu aldaketak. Gainera testuen egituratik ateratzen da idazki hori Jesusen garaikoa den, edo 30 urte beranduagokoa, edo 60 urte beranduagokoa. Gero zehatz-mehatz aldaketa hauen arrazoiak aztertzen dira.

4.3. Formen historiaren metodoa

XIX. gizaldiaren amaieran bat edo beste hasi ziren erlijioen historiari ematen zituen argitasunak jarraituz Bibliari egokitzen. Baina 1900 eta 1940 bitartean metodo honek aurrerakada handia eman zuen. Ikertzaile batzuk aipatzeko M Dibelius, K. L Schmidt eta R. Bultmann aipa daitezke beste askoren artean. Literatur genero batzuk agertzen dira Itun Berrian. Ikertzaileek hauek bereizten dituzte: Ebanjelioak, Apostoluen Eginak, Es-

kutitzak, apokalipsiak. Gero honelako atal bakoitzaren barruan nolako osagarriak dauden bereizten dute zehatz. Bigarren osagarri bat formulak dira, esaldi laburrak eta borobilak. Hirugarrenik, aztertzen da nolako egoera pertsonal eta sozialean sortu den testu hori. Honi 'bizitzako egoera' edo ezaguna egin den izena ematen zaio: 'Sitz im Leben'. Denok dakigu egoera desberdinak testu desberdin bat sortzen duela. Esaterako ez da berdina salerosketa eskutitz bat eta lagun bati idazten zaion eskutitza. Laugarren, formen historia da. Forma bat egoera sozial baten sortu da, baina gero Itun Berriko testu baten, beste egoera bati egokitzen zaio. Zati baten agertzen da ez dagoela unitaterik eta horrek esan nahi du forma bi hartu eta batuta jarri dituela idazleak. Hau argi ikusten da Markosen ebanjelio zati batzuk (zaharrago dena, edo Q iturriko zati batzuk), Mateoren paralelo diren zati batzuekin konparatuz.

4.4. Idazketaren historiaren metodoa

Conzelman hasi zen ikerketa honekin 1954an. Marxsen-ek urte bi geroago beste lan bat argitaratu zuen metodo berdintsuarekin. Esaterako, honek 'euangelion' hitza aztertzen du Markosengan. Hemen ez da Jesusen berri batzuk ematea, hitzaldi edo predikua baizik. S. Paulok hitz berdinari beste adierazi bat ematen dio: Jesukristo da subjektua eta 'euangelion' predikatua. Jesukristo bera da iragartzen dena. Markosentzat, berriz, 'euangelion' da iragartzen dena, eta horren edukia Jesus da. Lan hau egiteko irizpide mordo zehatz bat aurkitu dute adituek eta azalpen bat ondo egin nahi bada, metodo hori bete behar da.

Lagugarri diren datu guzti hauek ezagutzeko orduak eman behar dira liburu egokiak irakurtzen. Ikerle batzuen izenak aipatuko ditut. Zoritzarrez gehienak ez daude itzulita gaztelerara edo esparru honetan orain 30 urte ezaguna zen hizkuntza batera. K. Th Schäffer, A. Wikenhausen, P. Feine-J. Behm-W. G. Kümmel edo K Koch beste askoren artean. 1950 eta 1960 bitartean argitaratutako lanak dira. Pixka bat beranduago A. Ro-

bert-A. Feuillet ikerleek atera zuten Bibliaren sarrera on bat. Hau gaztelerara itzulita dago 1967an. Beste liburu interesgarri bat H. Zimmermann ikerlariak atera zuen 1967an Alemanian: 'Los métodos histórico-críticos en el N. T.' 1969an gaztelerara itzulia. 1980tik honantz alor honetan liburu mordo ederra itzulita dago gaztelerara hurrengo argitaletxeetan batez ere: Sígueme, Verbo Divino, Sal Terrae, Cristiandad, Secretariado Trinitario, PPC-SM, Desclée de Brouwer-Bilbao, Herder-Bartzelona, El Almendro, Trotta, eta Paulinas.

5. Ondorio batzuk

Gaitzespen emaielen kontra ere aditu batzuen kritika gogorra izan da. Rafael Agirre jaunak Biblia gaietan irakasle denak 30 bat urtetan hemengo unibertsitate baten, eta atzerrian eza-guna denak, Biblia gaietan idearik ere ez dutela idatzi du. 'Demuestran una ignorancia supina sobre la exégesis moderna y la investigación histórica sobre Jesús' idazten du. Eta erabiltzen dituzten aipamen eta iturrietatik hori agertzen da. Beste batek gaitzesle izan diren gotzainen konferentziako teologoek gezurretan eta kalumnietan oinarrituta eman dutela gaitzespen hori idatzi du. Berak ere jasan izan du teologo horien 'jakituria'. Eta horren aurka Elizan ez dagoela defentsarik eta epaitegietara jo behar lukeela esaten dio Pagolari.

Gezurra badirudi ere, gaitzesle hauek, 'Divino afflante spiritu' enziklika, Paulo VI.aren agiria, eta 'Bibliaren Vatikanoko Batzordearen' irizpideak arbuizatzen dituzte metodo historiko-kritikoak beharrezkoak direla Bibliaren interpretapenak egiteko, agiri horiek irakasten duten bezala. Eta gainera Pagolak aipatzen dituen ikerlari guztiak gaitzesten dituzte, Pagolak berak ez duelako asmatu Itun Berriaren azalpen historiko berri bat. Egiten duena da beste askok bere aurretik egindako ikerketen sintesi eta laburpen bat, era errazean idatzita eta gaur egiten diren hainbat galderen erantzuna bilatuz ondo haztatutako aukera bat emanda ikerlarien erantzunekin.

Beste ondorio bat: Nola irakasten da Bibliaren interpretape-na seminario batzuetan, eta nolako metodo eta liburuak erabil-tzen dira? Eta honekin batera doan galdera: Nolako irakasleak jartzen dira seminario horietan eta nola aukeratzen dira? Jesu-sen jarraitzaile bezala egia-aren eta argia-aren bila dabil-tza eliza-aren erakunde guztiak? Vatikanoko II. kontzilioa, eta han onartu zi-ren jokabide nagusiak ahaztu eta baztertu dira ‘de facto’ eta neurri bi ikusten dira Elizan: bat kontserbatzaileentzat, eta bes-te bat irekiago direnentzat. Hemen ez da agertzen inondik Paulo VI. berak hainbeste azpimarratu zuen elkarrizketa nahiz eta horretarako enziklika bat idatzi zuen (Ecclesiam suam). Gaitzesleen irizpideekin, ezin da ukitu ere egin Jesusen histo-ria. Historiatik kanpo gelditzen den norbait da edo hagiografia hutsaren barruan ikusi eta aztertu behar da. Eta hortik zenbat pauso daude monofisismora?

Beste batek esaten du gaitzesleek txantiloia hartu eta han-dik kanpo gelditzen dena gorritz markatu dutela besterik gabe. Eta galdera hau botatzen du: Inolako heresiarik bilatu al diote J. Sobrino, A. Torres Queiruga, J. L. Ruiz de la Peña (G. B.) Marciano Vidal, J. I. González Faus edo J. M^a Castillori? Epaile-ek ezin izan dute frogatu bat bera ere, baina hitzaldiak ematea debekatu, edo irakaskuntzatik kentzea lortu dute.

‘Kalaka’ ETBko programan (2008-03-26) partaide batek esan zuen Pagolak aurkezten duen Jesus indargabetua zela; ‘deska-feinatu’ hitza erabili zuen. Behar bada ez du ulertu sakonean liburu honen edukina. Hego eta Ertamerikako oinarrizko kris-tau komunitate askok eta askok liburu hau funtsezko legez hartu dute Jesus ezagutzeko. Badu antza zerbait, guri kristau izaten erakutsi diezaizkigutenak eskuarteko liburu bezala hartu dutenean. Kazetari baten hitzak egoki iruditzen zaizkit amaiera honetarako. Alonso Escalada jaunak idatzi du: ‘La pretensión de este pastoralista lúcido no ha sido la de mostrarnos su Je-sús, el reformador, el hombre del pueblo curador de dolencias, el identificado con el hijo del hombre y sus limitaciones,

sino que el esfuerzo por aproximarnos históricamente a Jesús nos invita a creyentes y no creyentes, a poco creyentes o malos creyentes, a acercarnos con fe más viva y concreta al Misterio de Dios encarnado en la fragilidad de Jesús. Este es el Jesús de Pagola y el mío'. (Deia, 23-03-2008)

J. M. Etxebarria